



TOKIKO AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Data: 2007ko uztailaren 11n
Lekua: Elorrioko Udala
Iraupena: 19:00etatik 21:00etara
Bertaratuak:
Udalaren izenean alkatea eta Tokiko Agenda 21 teknikaria.
Herritarren izenean, gutxi gorabehera 27 pertsona.
Udaltalde 21aren ordezkaria, Ismene Mandaluniz.
Gestiker Aholkularitzaren izenean, Aitor Urquijo eta Etor Goikouria.

SARRERA

Elorrioko alkateak eskerrak eta ongietorria eman dizkie bertaratuei. Bileraren testuingurua azaldu du, eta foro-deialdien artean izaniko denbora-tartearen zergatiak eman ditu: Udalsarea 21en sartzeko epeak eta Udaltaldeko zenbait udalerrik beren garapen iraunkorrerako ekintza-planak onartzeari itxaron beharra, hain zuzen ere. Horrez gain, airearen neurketari buruzko datuak emango dituzte, gai horrek udalerrian kezka handia sortu baitu.

Udalsarea 21ean sartzeagatik aholkularitzak zoriondu egiten du udalerria, baita ere Foroetan egindako lanagatik, beraien ekarpen eta proposamenak osoko bilkurak onartutako "Tokiko Ekintza Plan Iraunkorra 2007-2011" gauzatu dutelako.

AZALPENA

Aurkezpena egin ondoren, Elorrioko Foroak Tokiko Agenda 21en baitan orain arte egindako lana berrikusten da.

Elorrioko Tokiko Ekintza Planaren diseinua eta dokumentua onartu izatea azpimarratu da. Plan hori herritarren Foroan bertan sortutako proposamenez eta ekintzez dago osatuta; sei linea estrategiko nagusi ditu, guztira ehun eta hamabi ekintza garatzen direlarik.



Aurkezpenaren une honetan, Elorrioko Udaleko Tokiko Agenda 21 teknikariak hartu du hitza Elorrio eta Udaltalde 21eko gainerako udalerrien egoera pixka desberdinak direla azaltzeko. Udalak 2007 urterako ekintzen programazio bat egitea erabaki zuen. Horregatik, joan den urtean lehentasun bat zuten ekintzak eta beraien egoeraren berri eman du.

Lehentasuna duten ekintzak berrikusi ondoren, teknikariak airearen kalitateari buruzko ikerketan sakondu du, herritarrak oso kezkatuta baitaude gai horrekin. Aireaz aztertzeko eman diren pausoak zerrendatu ditu eta ikerketa zein puntutan dagoen azaldu du.

Otsailetik ekainera bitartean, airearen kalitatearen azterketa udalerriko 3 tokitan egin da: Padura kalean, Futbol zelaian eta Elizburu kaleko aparkalekuan, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Partikulei dagozkien emaitzak araudiak baimendutako isuri atmosferikoen maila gainditu egiten dutela adierazten du.

Jarraian, filtroak hartutako partikulen analisisia hurrengo pausoa dela azaldu da. Horrela, partikulen jatorria ezagutu ahal izango da eta kutsagarriak diren ala ez, zein mailatan diren kutsagarriak eta arduraduna nor den zehaztuko da.

Airearen kalitatearen neurketa adibide da gizartean interes handia pizten duten ekintzak martxan jartzen direla, nahiz eta 2007 urteko plangintzan ez agertu,.

Herritarrek eginiko beste adierazpen batzuek ere argi utzi dute herrian kezka handia dagoela gai horri buruz. Informazio zabalagoa eskatu da eta datu gehiago izan bezain laster herritarren eskura jartzeko ere eskatu zaio Udalari. Herritarrek gogorarazi nahi izan dute herriak aspalditik pairatzen duela arazo hau, eta ekintza zehatzak eta arazoa konponduko duten neurriak espero dituztela Elorrioko airearen egoera eta kalitatea hobetzeko. Une horretan, Alkateak lehentasunezko gaia dela adierazi du, horretan ari direla lanean, eta laster konponbideak izatea espero dutela.

Aholkularitzak jarraitzen du: gaurko Foroaren beste helburu nagusietako bat, Tokiko Agenda 21ak Udalarekin zer harreman-sistema duen eta Udalean parte hartzeko tresnak nola funtzionatuko duen azaltzen da. Ondoren, eskari eta galderekin hastea



proposatzen da, azaldutakoaren arabera, gai batzuei berriro heltzeko eta/edo beste gai batzuk proposatzeko, zalantzak argitzeko, etab.

Gero, Foroaren markoa eta helburuak azaldu dira. Aurkezpen orokorra amaitzean, Tokiko Agenda 21eko Herritarren Parte Hartze Foroaren funtzionamendu eta garapenean sakondu da. Gizarteari (herritarrei eta udalerriko agenteei) eta Udalari dagozkien funtzioak azpimarratu dira.

Ondoren, Tokiko Ekintza Planen ezartze-fasean Gizarteak (herritarrek) Udalarekin izango duen erlazioa gidatzeko egokia izan daitekeen funtzionamendu-mekanikari buruzko hainbat azalpen ematen dira.

ESKARIAK ETA GALDERAK

Airearen kalitateari eta isuri atmosferikoei buruz:

Bertaratutako batzuen ustez, airearen kalitatearen kontrola eta ebaluaketarekin jarraitzearen premia eta informazio zabalagoa, zehatzagoa eta fidagarriagoa izateko beharra ikusten dute. Hobetzeko zer aukera dauden eta zer ekintza egin daitezkeen jakiteko beharra ere azpimarratu dute.

Udalak gogorarazi nahi izan du udal batzorde batean gai hau lantzen dela eta emandako pauso guztien berri emango dutela.

Pertsona batzuek azpimarratu nahi izan dute Elorrio ez dela airearen kalitatearekin arazoak dituen udalerririk bakarra, eta beste udalerririk batzuek ere badutela partikula-isuriaren arazoa. Pertsona batek gogorarazi nahi izan du Lemoan arazo bera zutela eta konpontzea lortu dutela. Hori dela-eta, kaltetutako udalerriarekin hitz egitea proposatu dute, haiek arazoa konpontzeko zer neurri-mota hartu zuten ikusteko eta bideragarritasun eta eraginkortasun marko bat ezartzeko Elorrirentzat.



Era berean partaide batek, Amorebieta-Etxanoko enpresei buruz, udalerritik kanpo daudela dio, hirigunetik urruntzen badira biztanleengan ondorio zuzenak ez dituztela izango.

Foroen dinamikari eta herritarren eta Udalaren arteko harremanari buruz:

Bertaratutako batzuk gaurko Tokiko Agenda 21 Foroaren dinamikarekin harrিতuta azaldu dira, Aholkularitza protagonismo handia izaten ari delako. Erantzuna, deialdi hau ohiz kanpoko dela eta hurrengo Foroetan Aholkularitzak moderatzaile-lan hutsa egingo duela, hau da, herritarren eta Udalaren artean harreman zuzena egoteaz bakarrik arduratuko dela.

Bide batez, Udalarekin harremanetan jartzeko, Foroaz gain, beste modu batzuk ere eskura dituztela gogorarazi zaie partaideei. Bai telefonoz bai posta elektronikoaren bidez edo pertsonalki Tokiko Agenda 21eko teknikariari zuzentzen badira.

Herritarren eta Udalaren parte-hartzeko erari eta mailari buruz:

Partaideek, foroetan botatuko proposamenak aurrera egiten duten dudak adierazten dituzte eta esperotako emaitzak lortzen ez badira zer gertatuko den jakin nahi dute. Erantzuna, Udala Tokiko Agenda 21 Foroan eztabaidatutakoa eta proposatutakoa ahal den neurrian abian jartzeko saiatuko dela da.

Horrez gain, Udalari ez dagozkien eskumen eta funtzioetan, Tokiko Agenda 21 Foroan proposatutakoa aurrera eramateko, bideratzaile-lanak eta/edo bozeramaile-lanak egiteko prest dagoela adierazten da.

Herritarren lan-taldeeii buruz:

Gai zehatzak sakontzeaz arduratzen den lan-talde bat sortzea posible den galdetu dute. Foroa talde horiek osatzeko leku egokia dela bertaratuen artean interesatu asko egon daitezkeelako eta, beraz, talde horiek sortzea errazagoa delako.



Aukera gehiago ere badirela esan dute; adibidez, talde bat osatu eta Udalera jotzea zuzenean.

Gai honi lotuta, Udalak behar diren baliabideak jarriko dituela sortzen diren taldeak elkartzeko. Beraz, bilerak egiteko tokia, zenbait baliabide eta ahal den neurrian, udal langileen partaidetza izango dituztela, beraien lana ahalik eta ona eta eraginkorra izan dadin.

Udalak Tokiko Agenda 21 Foroan duen eginkizunari buruz:

Herritarrek berriz adierazten dute parte-hartze Foroetan Udaleko ordezkari teknikoak eta politikoak egotea garrantzitsua eta beharrezkoa dela.

Foroetako deialdietan gai nagusien zerrenda zehaztuta dagoenez, Udalaren konpromezua dela, jorratuko diren gaien arabera (teknologia, politika, hirigintza...) arlo horietan ezaguera duten pertsonak Foroan izatea. Horrek ez du esan nahi Udalbatzako edota Udaleko lantalde teknikoko beste kide batzuk gonbidatuko ez dituztenik Tokiko Agenda 21 Forora.

Eztabaidaren une honetan, gai-zerrenda, Foroa egin baino lehen herritarrek eta erakunde-arduradunek edukitzea komeni dela adierazi da, hausnartzeko denbora nahikoa izan dadin, horrela lana bizkorrago egin eta eraginkorragoa izateko.

Deialdia eta herritarren ordezkariak

Foroarentzat ona litzatekeela ahalik eta kolektibo gehienetako ordezkariak bertan izatea aipatzen da. Hezkuntza-komunitatea eta ikastetxeetan egiten ari diren Eskola Agendaren prozesua gogoratu eta herriko ikastetxe eta elkarteak hurrengo Foroetara deitzea proposatu da.

Elkarteei, ikastetxeei eta enpresei zuzenean dei egiteko eskatu zutela behin eta berriz gogorarazi nahi izan dute.



Elorrioko udala
Tokiko Agenda 21



Gaur egun deialdia egiteko modu nagusiak bi direla: gonbidapen gutunaren bitartez elkarte, enpresa, ikastola eta aurreko foroeko partaideei eta bando eta web gunearen (www.elorrio.net) bitartez. Argi azaltzen da Foroan edonork har dezakeela parte eta nork bere burua edota kolektiboren bat ordezkatu dezakeela bertan.

Eskerrak eta amaiera:

Partaideek ere foroari buruzko informazioa zabaldu dezaketela gogorarazi zaie, jende gehiago azaroan egongo den Forora etortzeko. Bigarren foro honen helburua 2008. urterako Elorrioko Tokiko Ekintza Planaren lehentasunezko ekintzak zehaztea eta 2007. urtean programatutako ekintzen garapen mailaren ebaluazioaren berri ematea izango da.

Elorrion, 2007ko uztairaren 11n